

Bidaiarien sarrerak % 7 gehitu dira 2003ko uztailean

Estatuko bidaiarien sarrerak % 12 ugaritu ziren.

Euskal AEko ostalaritza-establezimenduetan, 163.337 bidaiari-sarrera erregistratu dira 2003ko uztailean, Eustatek landutako datuen arabera. Zifra horiek erakusten dute % 3ko gehitzea gertatu dela aurreko urteko hil beraren aldean, hots, 2003ko uztailean baino ia 11.000 bisitari gehiago izan direla. Hiru herrialdeetan ez dute bilakaera bera izan bidaiarien sarrerak. Urte arteko gehitzerik handiena Bizkaian jazo da (% 11), eta ondoren Gipuzkoan (% 8); Araban, oster, % 1eko aldakuntza negatiboa izan da.

Estatuko bidaiarien sarrerak % 12 gehitu dira Euskal AE osoan. Atzerriko bidaiarien sarrerak, berriz, % 1 urritu dira. Estatutik datozen bidaiarien kopurua igo egin da hiru herrialdeetan, nahiz eta guztietan berdin ez: Bizkaian % 18, Gipuzkoan % 12 eta Araban % 2. Atzerrikoak gutxitu egin dira bi herrialdeetan: Araban (% -9) eta Bizkaian (% -1); Gipuzkoan, aldiz, % 1 ugaritu dira.

Estatutik datozen bidaiarien artean, gehitu egin dira Kataluniatik, Andaluziatik, Aragoitik eta Asturiastik datozenak, bai eta Euskal AEtik beretik eta Nafarroatik datozenak ere. Urritu egin dira, ordea, Madrildik, Kantabriatik eta Gaztela-Mantxatik etorriak. Atzerriko bidaiarien artean, gehitu egin dira Frantziatik eta AEB-Kanadetatik datozenak, eta gutxitu Alemaniatik, Erresuma Batutik eta Iberoamerikatik etorriak.

2003ko uztailean erregistraturiko gualdiak 307.870 dira, hau da, aurreko urteko hil berean baino 21.000 gehiago; bestela esanda, % 7 gehitu ziren. Gualdiek urte arteko bilakaera ezberdina izan dute hiru lurraldeetan: igo egin dira Bizkaian (% 12) eta Gipuzkoan (% 9); baina jaitsi Araban (% -5).

Bidaiarien batez besteko egonaldiak bere horretan iraun du Euskal AE osotara hartuta, hau da, 1,88 egunekoa dugu 2002ko uztailean eta 2003koan. % 1 luzatu da Bizkai-Gipuzkoetan, eta % 4 laburtu Araban.

Plazen betetze-maila % 2 jaitsi da Euskal AE osoan, lurraldeka bilakaera hau izan duelarik: Araban % -19, Bizkaian % 0,0 eta Gipuzkoan % 4.

Nekazalturismoa: gutxitu egin dira bidaiarien sarrerak (% -3) eta gehitu gualdiak (% 7)

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 9.552 bidaiari-sarrera zenbatu dira joan den uztailean, aurreko urteko hil berean baino % 3 gehiago: % 5 ugaritu dira Araban, % 2 Gipuzkoan, eta % 13 Bizkaian. Euskal AE osoan izandako murritztea atzeritik datozen bisitariak (% -17) eragin dute, atzerrikoek (% 0,0) ez baitute aldaketarik izan urte batetik bestera. Estatuko bisitariak Gipuzkoan baino ez dira ugaritu (% 4), eta atzerrikoak Araban (% 105).

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan egindako gaualdiak 30.025 izan dira uztaillean, 2003ko hil berean baino % 7 gehiago. Urte arteko hazkunde-tasa positiboak izan dira Araban (% 25) eta Gipuzkoan (% 13); ez, ordea, Bizkaian, han % 8 urritu baitira.

Batez besteko egonaldia, bidaiariko, hamar ehuneko-puntu hobetu da Euskal AE osoan, 2002ko uztailarekin alderatuta, Araban % 18, Gipuzkoan % 11 eta Bizkaian % 5.

Plazen betetze-maila, azkenik, % 3 beheratu da Euskal AE osoan, Bizkaian % 17 jaitsi delako, nahiz eta Araban (% 8) eta Gipuzkoan (% 5) goratu den.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945 017 506. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	07/2003	%	07/2002	%	Δ%	07/2003	%	07/2002	%	Δ%	07/2003	%	07/2002	%	Δ%	07/2003	%	07/2002	%	Δ%
HOTEL-EZTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	307.870	100	286.551	100	7	45.335	100	47.786	100	-5	110.480	100	98.632	100	12	152.055	100	140.133	100	9
Estatukoak	198.762	65	177.751	62	12	34.202	75	33.492	70	2	70.210	64	59.849	61	17	94.350	62	84.410	60	12
Atzerrikoak	109.108	35	108.800	38	0	11.133	25	14.294	30	-22	40.270	36	38.783	39	4	57.705	38	55.723	40	4
Hiriburua	195.512	64	182.725	64	7	32.063	71	35.343	74	-9	73.508	67	63.712	65	15	89.941	59	83.670	60	7
Kostaldea	42.298	14	43.441	15	-3	-	-	-	-	-	14.998	14	16.514	17	-9	27.300	18	26.927	19	1
Barnealdea	70.060	23	60.385	21	16	13.272	29	12.443	26	7	21.974	20	18.406	19	19	34.814	23	29.536	21	18
BIDAIARIEN SARRERAK	163.337	100	152.440	100	7	26.374	100	26.757	100	-1	58.860	100	53.122	100	11	78.103	100	72.561	100	8
Estatukoak	105.316	64	93.835	62	12	19.241	73	18.908	71	2	38.723	66	32.818	62	18	47.352	61	42.109	58	12
Atzerrikoak	58.021	36	58.605	38	-1	7.133	27	7.849	29	-9	20.137	34	20.304	38	-1	30.751	39	30.452	42	1
Hiriburua	98.592	60	94.880	62	4	16.960	64	17.422	65	-3	38.694	66	35.260	66	10	42.938	55	42.198	58	2
Kostaldea	22.896	14	22.730	15	1	-	-	-	-	-	8.391	14	8.765	16	-4	14.505	19	13.965	19	4
Barnealdea	41.849	26	34.830	23	20	9.414	36	9.335	35	1	11.775	20	9.097	17	29	20.660	26	16.398	23	26
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,88		1,88		0	1,72		1,79		-4	1,88		1,86		1	1,95		1,93		1
BETETZE-MAILA PLAZAKA	52,01		52,86		-2	46,07		56,71		-19	45,71		45,61		0	60,38		58,01		4
Hiriburua	55,50		57,05		-3	47,44		60,20		-21	47,50		45,97		3	69,23		68,04		2
Kostaldea	57,16		55,13		4	-		-		-	53,40		57,72		-7	59,46		53,65		11
Barnealdea	42,29		42,24		0	43,07		48,71		-12	37,35		37,53		0	45,80		43,19		6
BETETZE-MAILA GELAKA	59,31		62,29		-5	56,26		70,40		-20	54,08		56,05		-4	65,98		65,60		1
Hiriburua	63,18		66,76		-5	59,94		76,60		-22	56,44		56,44		0	74,46		74,76		0
Kostaldea	61,31		62,65		-2	-		-		-	62,12		72,26		-14	60,85		57,35		6
Barnealdea	49,28		50,04		-2	46,34		50,09		-7	43,02		47,06		-9	55,06		52,65		5
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	30.025	100	28.101	100	7	4.068	100	3.265	100	25	9.037	100	9.872	100	-8	16.920	100	14.964	100	13
Estatukoak	25.276	84	22.930	82	10	3.804	94	3.097	95	23	6.933	77	7.206	73	-4	14.539	86	12.627	84	15
Atzerrikoak	4.749	16	5.171	18	-8	264	6	168	5	57	2.104	23	2.666	27	-21	2.381	14	2.337	16	2
BIDAIARIEN SARRERAK	9.552	100	9.839	100	-3	1.376	100	1.308	100	5	3.036	100	3.470	100	-13	5.140	100	5.061	100	2
Estatukoak	8.204	86	8.220	84	0	1.253	91	1.248	95	0	2.431	80	2.632	76	-8	4.520	88	4.340	86	4
Atzerrikoak	1.348	14	1.619	16	-17	123	9	60	5	105	605	20	838	24	-28	620	12	721	14	-14
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,14		2,86		10	2,96		2,50		18	2,98		2,84		5	3,29		2,96		11
BETETZE-MAILA PLAZAKA	41,50		42,60		-3	29,96		27,72		8	38,56		46,35		-17	47,88		45,50		5
BETETZE-MAILA GELAKA	43,61		44,32		-2	29,20		27,88		5	41,89		48,97		-14	50,13		47,24		6

Iturria:EUSTAT